

## IOKIN ZAITEGI-REN GAINKO MAHAI BOROBILAK ARRASATEN

*Arrasate, 1981-IX-15*

*Josemari Vélez de Mendizábal*

Iokin Zaitegi jaio zeneko hirurogei eta hamabostgarren urtebetetzea 1981.ean dela eta euskaltzale haundia zenaren bizitza eta lana bere herkideen artean ezagutarazteko mahai borobil pare bat antolatzea proposatu nuen Arrasateko Udaletxean. Eta Udalak herriko jai-egitarauan sartu zituen ekintza hoiak.

Ekainaren 15 eta 16.an izan ziren mahai borobilak Udaletxeko areto nagusian.

Lehen egunean parte hartu genuenok, Aita Gaizka Barandiaran, Abel Muniategi eta hirurok izan ginen. Aita Barandiaranek Zaitegiren bizitzari buruzko zenbait puntuz hitzegin zuen. Abelek Zaitegi olerkari bezala aztertu zigun eta, nere gaia "Zaitegi, itzultzailea" izan zen. Aita Barandiaranek bereari ekin aurretik Iokinen gaineko zenbait xehetasun adierazgarri eman nuen, entzuleek gerokoa hobeto ulertu ahal izateko.

Aita Barandiaranek Zaitegi eta Lagundiaren arteko harremanak nolakoak izan ziren jakinarazi zuen, gure hizkuntzak Konpainia barruan bizi izan zuen giro gorria azaltzen zuelarik. Zaitegik bere gorputzean sufritu zuen giro haren ondorio latza. Loiola, Oña, Marneffe, San Salvador... izan ziren Zaitegik euskaragintzan egiten zituen aurrerapenen lekukoak. Konpainiak ez lagundu arren erdi ixilpean zuzendu zituen bere urratsak, bera ez ezik baita josulagunkide asko ere helburu berdinaragiten zuelarik. Euskaltzale Bazkuna sortu zen Loiolan. Euskara zuten jomuga nagusia, gure hizkuntzaren bizitza indartu nahian zihardutelarik. Alde askotako presioak bere gainean dituelarik Konpainia uzten du 1944.an.

Abel Muniategik olerkari bezala aztertu zuen Zaitegi. Jakina den legez, olerkigintza da arrasatearrak lehenen landutako arloa. Hain zuzen ere, 1934.an Zarautzen antolatutako "Olerti Eguna" deritzanean lehen saria lortu zuen *Tori nire edontzia* izeneko poemaz. Gero *Goldaketan* liburua argitaratu zeun 1946.an Mexikon eta, *Berriz ere Goldaketan*.


1961.ean Guatemalan, Abelen ustez, bigarren liburu honetan lortzen du Zaitegik arloko gailurra. Baita euskarari dagokionez ere, aberatsagoa duela dio. Zenbait poemaren zergaitikakoa adierazi zuen Abelek, gehienetan iger daitekeen abertzaletasuna azpimarratuz.

Azkenik, lehen esan dudan bezala, itzultzailearen alderdia aztertu nuen nik. Eladera eta lateraz gainera Zaitegik beste zenbait hizkuntza erabili zuen, baina klasiko hoietan egindako lana bakarrik azaldu nuen, ene ustez, horixe baita garrantzitsuen.

Zaitegi abertzaletasunak eragin zuen hizkuntza klasikoetatik itzulpenak egitera. Eta, hain zuzen ere, klasikoetan zuten oinarri sendoa aprobetxatu nahian eladerazko eta laterazko idazleak euskaratu behar zituztela erabaki zuten Loiolako Bazkunekoek. Taldea osatzen zutenen artean **Andima Ibinagabeitia** zegoen eta Loiolan egindako zin-antzeko hari jarraiki, arrasatear eta elantxobearrak zintzo zintzo iraun zuten itzulpenak egiten.

Zaitegi-itzultzaileak jasotako kritika denetarikoa izan da baina ba dirudi bihar etziko euskal gizarteak haren lana onartuko duela. Platon irakurtzea ez da erreza. Askoz gutxiago euskaraz ba dago idatzita. Guzti honek astunkeria ekar diezaioke irakurleari. Baina gauza batez ziurtasun osoaz mintza daiteke: euskal gizarte berri bat eraiki nahi baldin badugu, klasikoez heuren zatirik euki beharko dute hartan. Zaitegik euskal Unibertsitaterako harlotsa haundi bat jarri duela pentsatu behar dugu. Harlosa honen gainean indartsuagoki jasoko da euskaldunen eraikuntza.

Biharamonean, asteartez, Iokinek sortu eta zuzendia izan zen **Euzko Gogoa** aldizkariari buruz mintzatu zen mahai borobilean. Joseba Intxausti, Mikel Lasa eta hirurok izan ginen mahaikide. Guatemalan sortu zuen Iokinek **Euzko Gogoa** eta denok dakigun bezala, gerra ondoko lehen aldizkari euskalduna izan zen hura. Helburu bat bakarrik zeukan Zaitegik aldizkaria kaleratzean: euskara kulturaren garraia gailua bihurtzea. Ideia nagusi honen ingurua elkar hizketa bizi bat izan zen Udaletxeko aretora bildu ginen guztion artean.



Jokin Zaitegiri Omenaldia (Arrasate, 1981-VI-16)  
*Ezkerretatik eskuinetara:* Mikel Lasa, Joseba Intxausti eta J. M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal

Iokinek aldizkaria argitaratzeko sufritu behar izan zituen buruhauste eta une larriak ez ziren gutxi izan eta, hain zuzen ere, honetxek ematen dio garrantzia enpresa haundi hari. Garaiko idazle euskaldunik gahienen izenak aurki daitezke aldizkariaren orrialdeetan. Iokin —dena esan behar da— gizon zabala zen eta ez zion sekulan inori eragozpenik jarri hartan idazteko. Gaurrengungo zenbait aldizkari nahiz egunkaritako arduradunek eredutzat har zezaketen arrasatearra, ez bakarrik hizkuntzarekiko zuen begirunearengatik, baita bizitzan zehar erakutsi zigun idekitasunarengatik ere, baizik.

Osasuna eta dirutza eralki zituen Iokinek euskararen alde, hauxe baitzuen helburu eta eragile. Herria eta euskara gai genuela behin esan zidana, ez dut sekulan ahantziko: *Herri bezala nahi baldin badugu iraun, euskara garbia, nahiz euskara jatorra, nahiz euskara zatarra...*, nahi duzuna, baina euskaraz.

Mahai borobil hauek Zaitegi apurño bat ezagunago egiteko aukera eman digute. Baina Iokinek gehiago merezi duela deritzat. Eta guztioi dagokigu behar den tokiraino jasotzea. Ekin dezaiozun, beraz, lanari.